

**GERNIKAKO ARBOLAREN KIMUAREN ZIURTAGIRIA
CERTIFICADO DE RETOÑO DEL ÁRBOL DE GERNIKA**

2020-01-28 Vitoria-Gasteiz 28-01-2020

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburuok, Bizkaiko Batzar Nagusietako presidente andrea, Lehendakaritzako kideok, jaun andreok, egun on.

Lehendakaritzako sarbidea eraberritzeari esker, Gernikako zuhaitzaren kimu bat landatzeko gune bat sortu da.

Bizkaiko Batzar Nagusiei eta presidenteari eskerrak eman nahi dizkiegu haritz hau emateagatik; baita Ajuria Enean duguna ziurtatzeagatik ere. Gernikako haritzak Bakea, Demokrazia eta Askatasuna islatzen ditu. Horregatik da hain garrantzitsua gure Erakunde guztietan landatzea, zaintzea eta erakustea.

Gaurko ekitaldi hau, Gernikako zuhaitz honek irudikatzen duenarekin lotura eta garrantzi handia duten Nazioarteko hiru oroitzapen batzen dituen aste batean antolatu dugu.

Atzo, urtarrilaren 27a, holokaustoaren biktimen omenez urtero ospatzen den Nazioarteko Eguna izan zen. Atzo bete ziren 75 urte Auschwitz-Birkenauko kontzentrazio esparrua askatu zela. Nazio Batuen Erakundeak holokaustoa irudikatu zuena ez ahaztutzea nahi du. Antza izan ginen Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentea ere eta biok Auschwitz-Birkenauen Gernikako zuhaitzaren kimu bat ere landatzen. Beraz, bada Auschwitz-Birkenauen ere Gernikako zuhaitzaren kimu bat.

Bigarrenik gaur, urtarrilaren 28a, CO₂ isurien murrizketaren aldeko Munduko Eguna ospatzen da. Nazio Batuen Erakundearen helburua da gure planetako biztanleak sensibilizatzea klima-aldaketaren eta horrek ingurumenean duen eraginaren inguruan.

Hirugarrenik, ostegunean, urtarrilaren 30ean, Mahatma Ghandiren heriotza dugu gogoan. Hori dela eta, 1964tik, Indarkeria ezaren eta Bakearen Eskola Eguna ospatzen da. Horrekin, Giza Eskubideen, Bakearen eta Elkartasunaren aldeko hezkuntzaren garrantzia eta beharra azpimarratu nahi da.

Estas son las tres conmemoraciones internacionales que tienen lugar esta semana y a las que nos sumamos con este acto de plantación del retoño del árbol de Gernika en Lehendakaritza:

-Ayer se cumplieron 75 años de la liberación del campo de concentración de Auschwitz-Birkenau, donde plantamos también un retoño del árbol de Gernika, y se celebra el Día Internacional de Naciones Unidas en Memoria de las víctimas del holocausto. Allí estuvimos junto con la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, y en recuerdo de aquel viaje y de la plantación del retoño del Árbol de Gernika nos trajimos el recuerdo,

en homenaje a todas las víctimas del holocausto que sufrieron en el campo de concentración y exterminio en Auschwitz-Birkenau.

-Hoy se celebra el Día Mundial por la Reducción de Emisiones de CO₂, con el que Naciones Unidas quiere crear conciencia y sensibilizar sobre el cambio climático y su impacto ambiental.

-Este jueves se recuerda la muerte de Mahatma Ghandi y, desde 1964, se conmemora el Día Escolar de la No Violencia y la Paz. Este Día internacional subraya la relevancia de la Educación para los Derechos Humanos, la No violencia, la Paz y la Solidaridad.

El árbol de Gernika forma parte de nuestra historia y es símbolo de la memoria democrática de nuestro Pueblo. Los valores que encierra miran al pasado y son plenamente actuales.

Este árbol representa la denuncia del bombardeo de Gernika y de todas las barbaries contra la humanidad, tal y como Picasso inmortalizó en su obra más universal.

Este árbol hunde sus raíces en la tierra y nos recuerda nuestro compromiso con el respeto al medio ambiente y la defensa de la sostenibilidad del planeta.

El árbol de Gernika tiene una proyección universal y su silueta simboliza el respeto universal a la dignidad humana, la educación y cultura de paz, la sostenibilidad, la convivencia y la libertad.

Egunero hemendik sartzeraoan, Gernikako zuhaitzak iraganean gertatu zena ekarriko digu gogora.

Gogoraziko digu, halaber, politika publikoetan gure zeregina giza eskubideen, ingurumenaren, hezkuntzaren, bake kulturaren eta bizikidetzarako pedagogiaren defentsa eta errespetua zaintzea izan behar dela.

Eskerrik asko Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentea, eskerrik asko guztioi eta egun ona izan dezazuela guztiok.